

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

## *Asparrena*

Aurkibidea

# Udalerria: Asparrena

## Sarrera



Arabako ipar-ekialdeko udalerria da, Arabako Lautadako Kuadrillakoa. Araia du udalburu, eta udalerriak baditu beste bederatzi herri ere: Albeniz, Ametzaga, Andoin, Arriola, Egino, Gordoia, Iburguren, Ilarduia, eta Urabain. Arabako Lautadan badago ere, Asparrenak inguru menditsua du, iparraldean Aratz eta Umandia mendiak, hegoaldean Ballo eta hego-ekialdean Legunbe.

Argazkia: Wikimedia, [Unai Fdz. de Betoño](#).

- **Biztanleak:** 1.637
- **Euskaldunak:** %28,08

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **9**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **9**

## Proiektuak

- Gasteizko Euskararen Ahotsak

## Hizlariak

### **Felix Ruiz de Gordo Martinez de Albeniz (1966)**

1966an jaio zen Araian. Guraso biak araiarrak zituen. Oinarrizko eskolara Araiara joan zen, eta gero Gasteizera. Kontabilitate Ikasketak eta Musika Ikasketak egin zituen, azken hauek Gasteizen, Bilbon eta Madrilen.



Bueltatutakoan, Lazkaoko barnetegian egon zen euskara ikasten. Txikitatik izan dute Felixek eta anaiek musikazaletasuna, aitzak trikitia jotzen baitzuen igandero. Joselu anaia musika talde bateko kide zen Altsasun, eta distantzia zela eta, 1977an anaiek erromeria talde bat sortzea erabaki zuten: "Joselu eta anayak", ondoren "[Joselu Anayak](#)" izenez ezagunagoa egingo zena. Taldeko bateria jotzailea da Felix. Euskaraz abesten dute eta 8 diska dituzte: lehenengoa 1989an atera zuten, eta azkena 2017an, 40. urteurrenean. Gaur egun oraindik plazaz plaza aritzen dira. Gasteizen bizi da eta Budha izeneko tabernaren jabea da. [Gasteizko Ahotsak](#) proiekturako elkarrizketatua.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Nondik datorkio musikarako grina (APR-001/006)**

Trikitilaria zuten aita. Igandero aritzen zen trikitixa jotzen.

### **2. "Joselu anayak" taldearen hastapenak (APR-001/007)**

Musikaria dira bost senideak. Musikari ibilbideari bakoitzak bere aldetik ekin zion arren, 1977. urtean elkartu eta "Joselu ta anayak" sortzea erabaki zuten. Taldearen izenari buruzko azalpenak ematen ditu.

### **3. Zergatik abesten duten euskaraz (APR-001/010)**

Hasieratik erabaki zuten euskaraz kantatzea. Euskararen aldeko aldarrikapen moduan egiten zutela kontatzen du.

### **4. Lazkaoko barnetegian ikasi zuen euskaraz (APR-001/012)**

Euskara ez du etxean jaso. Lazkaoko barnetegian ikasi zuen aspaldi. Garai hartako oroitzapen zoragarriak dauzka. Gasteizera itzuli zenean, euskaraz jarduteko zailtasuna gogoan dauka.

## **5. Kanten hitzak idazteko dituzten laguntzaileak (APR-001/014)**

Ander Gorospe, Arratiako lagunak, idatzi zuen "Ai Anselma" abesti ezaguna. Xabier Olaso eta Juan Jose Gerriko dira kantugintzan laguntzeko prest dituzten beste bi adiskide.

## **6. Edozein musika-estilo jotzeko gai dira (APR-001/015)**

Nahiz eta 1989. urtean lehen diska grabatu zutenetik hona teknikoki asko aurreratu den, musikari dagokionean ildo beretik jarraitzen dute. Edozein estilo jotzeko gai dira; entzuleen arabera moldatzen dute musika-estiloa.

## **7. Urte bakarrean 210 kontzertu ematera iritsi ziren behin (APR-001/017)**

Garai batean, dantzalekuetan ere jotzen zutenek, neguan ere izaten zituzten kontzertuak. Gaur egun egoera beste bat den arren, emanaldi asko izaten jarraitzen dute eta gogorra dela aitortzen du.

## **8. Plazarik plaza jarraitzen dute (APR-001/021)**

Badira urtero-urtero errepikatzen dituzten plaza batzuk: Zegama, Gasteiz, Gabiri, Idiazabal, etab. Nahiz eta neguan emanaldi gutxiago eman, bestelako lanak izaten dituzte. Tamalez, ezin daiteke musikatik bizi.

## **9. Orain ez bezala, Araitik etorri berritan ez zuen euskararik entzuten Gasteizko kaleetan (APR-001/025)**

Euskara entzuten du Gasteizko kaleetan eta oso pozik ageri da. Araitik etorri zenean ez omen zen hori gertatzen.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-03-27*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com